

2022an, etxerik gabeko pertsonentzako arreta-zentroen gastuak % 15,8ko igoera izan zuen Euskal AEn, 2020. urtearekin alderatuta


Zentroetan arreta jaso duten pertsonen kopuruak behera egin du 2020. urtearekin alderatuta, baina genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen plazek % 57ko igoera izan dute

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko gizarte-zerbitzuen etxerik gabeko pertsonentzako arreta-zentroen gastua 76 milioi eurora iritsi zen 2022. urtean, eta, beraz, 2020an, pandemiaren urtean alegia, baino % 15,8 handiagoa izan zen. Etxerik gabeko pertsonentzako arreta 276 zentroz eta zerbitzuz osatutako sare baten bidez eskaini zen. Sare horrek eguneko 3.410 pertsonari eman zien ostatu batez beste, hau da, 2020an baino % 1,8 gutxiagori. Ostatu hartu zuten pertsonen artean, 638 (batez beste) bizitegi-bazterketa larriko etxegabeak izan ziren. Sare horretan, 2.385 langilek jardun zuten.

Baliabide guztiek 4.313 ostatu-plaza eskaini zituzten (urteko batezbestekoa), hau da, 2020an baino 53 gehiago, eta okupazio-maila % 79ra iritsi zen. Plaza horietatik, harrera-zentroetan eskainitako plazek % 16,2ko beherakada izan zuten. Etxebizitzaren eskaintzak, berriz, gora egin zuen 2020. urtearekin alderatuta, eta eskainitako plazak % 19,2 gehiago izan ziren. Etxerik gabeko pertsonentzat eskuragarri dauden etxebizitzaren batez besteko kopuruak % 23,1eko igoera izan zuen, eta arreta jaso duten familien ehunekoa bikoiztu egin da azken bi urteetan.

Halaber, eguneko 1.375 plaza eskaini ziren, eta % 88ko okupazioa izan zuten. Otorduen esparruan, batez beste 4.472 zerbitzu eman ziren egunero, gosariak, bazkariak eta afariak kontuan hartuta, hau da, bi urte lehenago baino ia % 20 gutxiago.

Etixerik gabeko pertsonentzako ostatu- eta jatetxe-plazen bilakaera Euskal AEn



Iturria: Eustat. Etxerik gabeko pertsonentzako baliabideen estatistika

Euskal AEk Estatuko ostatu-plazen % 16,2 eskaini zituen

Bi ezaugarri nabarmendu dira etxerik gabeko pertsonentzako euskal arreta-sarean: euskal zentroen tamaina txikiagoa eta bertan diharduten lantaldeen profesionalizazio handiagoa, kontuan hartuta Euskadin % 73,6 soldatako langileak eta % 19 boluntarioak direla, eta Estatuan, berriz, ehuneko horiek % 49,5 eta % 44,6 direla, hurrenez hurren. Gainera, euskal sareak Estatuko ostatu-plaza guztien % 16,2 eskaini zituen.

Baliabide horien erabilerari dagokionez, ostatua eskaintzen duten Euskal AEko zentroetan etxerik gabeko 3.410 pertsonak egin zuten lo egunean batez beste, eta Estatu osoan, berriz, 21.684 pertsonak. Beraz, Estatuko guztizkoaren % 15,7 izan ziren.

Baliabideak hiriburuetan biltzeko joera dago

Etxerik gabeko pertsonak hiri handietan biltzeko joera dute. Hori dela eta, baliabideak ere hiru euskal hiriburuetan eskaini ziren nagusiki. Arabako ostatu-plazen % 96,4 eta otordu-plazen eta eguneko zentroetako plazen % 100 Gasteizen eskaini ziren. Bizkaian, Bilbok ostatu-plazen % 75,7, otordu-plazen % 78 eta eguneko zentroetako plazen % 75,4 bildu zituen. Gipuzkoak, berriz, lurralde-eredurik deszentralizatuena izan zuen. Izan ere, Donostian ostatu-plazen % 41, otordu-plazen % 36,8 eta eguneko zentroetako plazen % 38 eskaini ziren.

Zentroetan eskainitako prestaziorik nabarmenenak

Euskadiko zentroen sarean, etxerik gabeko pertsonen bizi-kalitatea hobetzerantz bideratutako hainbat prestazio eskaini ziren. Euskadiko 276 zentroen % 73,6k “informazio- eta harrera-zerbitzua” eman zuten, % 65,9k “orientazio- eta deribazio-zerbitzua”, % 66,7k “laguntza-zerbitzua” eta % 38,4k “lanbide-orientazioko zerbitzua”. Halaber, zerbitzu pertsonalak eman zituzten, hala nola garbitasun-zerbitzua (% 55,8k), ikuztegia (% 52,2k) eta jantzitegia (% 25,7k). Osasun-arreta, arreta psikologikoa eta arreta juridikoa zentroen % 15,9k, % 30ek eta % 26,8k eskaini zituzten, hurrenez hurren. Gainera, zentroen % 43,5ek Internetarako sarbidea eskaini zuten.


Arreta jaso duten pertsonen tipologia

Etxerik gabeko pertsonentzako arreta-zentroen % 51,4 egoera jakin batzuetan ez zeuden pertsonengana bideratu ziren. Larrialdi-premietara egokitzen diren baliabideak dira. Egoera espezifikoak dituzten pertsonen laguntzen dieten zentroen artean, immigrazio-arloan diharduten zentroak (% 34,3), adikzioak —alkohola eta drogak— dituzten pertsonen laguntzen dietenak (% 26,1) eta genero-indarkeriaren edo salerosketaren biktimak diren emakumeen laguntzen dietenak (% 35,8) nabarmendu ziren.

Arreta jaso zuten pertsonen sexuari dagokionez, zentro gehienek (% 73,2k) bi sexuetako pertsonen eskaini zieten arreta. Hala ere, aldeak agertu dira lurralde historikoaren arabera. Izan ere, Gipuzkoak zentro mistoen ehunekorik handiena izan zuen, % 82,9ekin. Araban eta Bizkaian, berriz, % 67,6 eta % 65,6 izan ziren, hurrenez hurren.

2022. urtean, Euskal AEn genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek okupaturako plazak % 57ko igoera izan zuten 2020. urtearekin alderatuta, eta 270 plazara iritsi ziren. Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak “etxebizitza ez-segurua” kategorian sailkatuta daude estatistika honetan, indarkeriaren mehatxupean bizi baitira. Erasotzailearentzat ezezaguna den leku batean dagoen etxebizitza bat ematen zaie, eta, askotan, seme-alabekin hartzen dute ostatu.

Euskal AEko genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako zentroetako etxebizitzak, plazak eta familia kopurua



Iturria: Eustat. Etxerik gabeko pertsonentzako baliabideen estatistika

Euskadin arreta eman zitzaientzako pertsonen erdiak baino gehiago (% 63,4) atzerritarrak izan ziren, eta banaketa antzekoa izan zen lurralde historiko guztietan: % 69,3 Araban, % 65,6 Bizkaian eta % 59,3 Gipuzkoan. Ostatu-baliabideen kasuan, Euskal AE osoan arreta jaso zuten atzerritarren ehunekoa % 65era iritsi zen.

Gastu arrunta 76 milioi eurora iritsi zen

Euskal AEko gizarte-zerbitzuen sarean etxerik gabeko pertsonen eskaintako arretak 76 milioi euroko gastua izan zuen 2022an, hau da, 2020an baino % 15,8 handiagoa. Gastu horren zatirik handiena (% 83) ostatua eskaintzen zuten zentroetara bideratu zen. Zentro horietan, zehazki, 63,2 milioi euro gastatu ziren, eta 18.522 euroko urteko batez besteko gastua egin zen ostatu hartutako pertsona bakoitzeko.

Administrazio publikoek —aldundiek eta udalek nagusiki— gastu horren % 90 finantzatu zuten. Gainerako % 10a entitateen baliabide propioen (% 5), erakunde pribatuen (% 3,7), partikularren dohaintzen (% 1) eta enpresen (% 0,3) bidez finantzatu zen. Arabaren kasuan, esan daiteke ia finantzaketa guztia (% 97,7) publikoa izan zela. Bizkaian, finantzaketa publikoa % 85era iritsi zen, eta Gipuzkoan, berriz, % 92,4ra.

Emakumeak zentroen sarean diharduten langile guztien % 70,2 izan ziren

2022. urtean, 2.385 pertsonak lan egin zuten baliabide horietan, hau da, 2020an baino % 13,3 gutxiagok. Soldatuko langileen kopuruak % 7,7ko beherakada izan zuen 2020. urtearekin alderatuta, eta boluntarioen kopuruak ere % 29,6ko beherakada izan zuen. Sektore honetan, enplegua emakumeena da nagusiki, eta emakumeen ehunekoa handiagoa da soldatuko langileen kasuan boluntarioen kasuan baino (% 72,8 eta % 59,9, hurrenez hurren).

Abenduan, 657 etxegabek aterpetxeetan eta eskakizun txikiko zentroetan egin zuten lo

Abenduan (baliabide-eskakizunik handieneko garaian) ostatua eskaintzen zuten zentroetan lo egin zuten 3.473 pertsonetatik, 657 Euskadin gaitutako 27 aterpetxe eta eskakizun txikiko zentroetan lo egin zuten "etxegabeak" izan ziren; haietako 60 emakumeak ziren. Etxebizitzarik gabeko gainerakoak (2.816 pertsona) sareko zentroetan eta etxebizitzetan zeuden. Haietatik, 1.039 emakumeak ziren.

Euskal AEko etxerik gabeko pertsonen arretarako zentroen magnitude nagusiak. 2020-2022

	2022	2020	Gehikuntza (%)
Plazak :			
Ostatu hartzeko plazak :	4.313	4.260	1,2
-- Eskakizun txikiko aterpetxe eta zentroetan	748	1.098	-31,9
Jateko plazak :	2.775	3.158	-12,1
Gizarte-jantokietan	809	899	-10,0
Etxerik gabeko pertsonak, ostatu hartuta :	3.410	3.471	-1,8
-- Eskakizun txikiko aterpetxe eta zentroetan	638	993	-35,8
Errestiturazio-zerbitzuak	4.472	5.581	-19,9
Langileak :	2.385	2.752	-13,3
Soldatapekoa	1.756	1.903	-7,7
Boluntarioa	452	642	-29,6
Funtzionamendu-gastuak (milaka euro)	76.072	65.708	15,8
Finantza-keta Publikoa (%)	90	91	-1,3
Biztanleko gastua (euro)	34,8	29,9	16,4

Oharra: Plazak eta okupazioa ekainaren 15eko eta abenduaren 15eko batez bestekoak dira

Data 2023ko Irailaren 26a

Iturria: Eustat. Etxerik gabeko pertsonentzako baliabideak

Eragiketa estatistiko hau Eustatek egin du Estatistikako Institutu Nazionalarekin (INE) lankidetzan Euskal AEn

Ohar metodologikoa: *Estatistika honen ondorioetarako, etxerik gabeko pertsonatzat hartzen da erreferentziako aldiaren eskuarki onartutako gizakientzako bizigarritasun-irizpideak betetzen dituen bizitoki bat eskuratzeko aukerarik ez duen 18 urtetik gorako pertsona, bizitokia lege beraren jabetzakoa izan zein alokatua edo doan okupatua izan (sektore publikoak edo gobernu kanpoko erakundeek emandakoak eta enplegatzaileek emandakoak barne). Besteak beste, egoera hauetan daudenak hartzen dira kontuan: adikzioak dituzten pertsonak; migratzaileak eta nazioarteko babes-eskaera egin dutenak; tutoretzapekoak izan diren gazteak, eta beren segurtasuna bermatzeko beren ohiko etxebizitzatik atera behar duten genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.*

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62